

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

SORALUZE-PLACENCIA DE LAS ARMASKO UDALA

Iragarkia

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2017ko uztailaren 17an, Obra eta Zerbitzuetako Brigadarako peoi-lurperatzailea, aldi baterako eta txandakako kontratuarekin, lehiaketa-oposizioaren bidez, kontratatzeko deialdia arautuko duten oinarriak onartu, eta deialdia egin zuen. Era berean 20 egun naturaleko epea zabaldu da deialdiaren iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

Soraluze-Placencia de las Armas, 2017ko irailaren 6a.—Iker Aldazabal Basauri, alkatea. (6252)

Obra eta Zerbitzuetako Brigadarako peoi-lurperatzailea kontratatzeko deialdia arautuko duten oinarriak.

1. *Deialdiaren xedea.*

Deialdi honen xedea da Obra eta Zerbitzuen Brigadarako, aldi baterako eta txandakako kontratuarekin, peoi-lurperatzailea kontratatzea, lehiaketa-oposizioaren bidez.

Kontratuaren iraupena, estimatua, lau urtekoa izan da.

Lanpostua sailkapeneko E taldekoa da, eta 8,5 mailari dagokion soldata-maila du. Halaber, 2. hizkuntz eskakizuna dagokio, derrigorrezkoa.

Lan-kontrata lan-jardun partzialekoa izango da, udalak kontraktorik erabakitzen ez badu, eta % 75eko dedikazioa izango du. Hori dela-eta, erretiro partziala hartzen duen langile-arekin egingo du urteko egutegiaren banaketa, azken honek lan egiten duenean berak egutegian libre izango duelarik.

Lanegunak eta ordutegia udalak urtean-urtean finkatuta izango dira, betiere lanpostuaren izaeraren eta zerbitzuaren premien arabera.

2. *Betekizunak.*

Deialdi honen xede den lanpostuaren eginkizunak, besteak beste, ondoko hauek dira:

1. Arduradunarekin egunez egun harremanak izan lanak banatzeko eta hauen nondik norakoak zehazteko.

2. Hilerriko zerbitzua: gorputzak lurperatze eta hobitrik ateratzea; hilobiak ireki eta itxi; kanposantuko garbiketa eta mantentze lanak egitea.

3. Hiri-altzarietako elementuak (eserlekuak, paperontziak...) eta bide-seinaleztapeneko elementuak kokatu, mantendu eta konponketa-lanak burutu.

4. Erabiltzen den makinaria, erreminta eta neurri laguntzaileen mantentze-lanak burutu eta banatu.

5. Era guztietako pintaketa-lanak burutu, bide publikoetako elementuetan nahiz eraikin publikoetan.

6. Taulatuak muntatu, jai, kultura eta beste departamentuak azpiegiturak jartzeko laguntza eman (mahaiak, aulkiak, tarimak...).

AYUNTAMIENTO DE SORALUZE-PLACENCIA DE LAS ARMAS

Anuncio

La Junta de Gobierno Local, de fecha de 17 de julio de 2017, aprobó las bases para la contratación temporal con contrato de relevo, mediante concurso-oposición, de un peón-enterrador para la Brigada de Obras y Servicios, efectuando así mismo su convocatoria y abriendo un plazo de 20 días naturales contados a partir del día siguiente al de la publicación del anuncio de la convocatoria en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Soraluze-Placencia de las Armas, a 6 de septiembre de 2017.—El alcalde, Iker Aldazabal Basauri. (6252)

Bases que regirán la convocatoria para la contratación de un peón-enterrador para la Brigada de Obras y Servicios.

1. *Objeto de la convocatoria.*

Constituye objeto de la presente convocatoria la contratación temporal con contrato de relevo, mediante concurso-oposición, de un peón-enterrador para la Brigada de Obras y Servicios.

La duración estimada del contrato será de cuatro años.

El puesto de trabajo está incluido en el grupo de clasificación E, con un nivel retributivo 8,5. Asimismo, tiene asignado el perfil lingüístico 2, con carácter preceptivo.

El contrato laboral será a jornada parcial, a no ser que el Ayuntamiento adopte otro acuerdo, con una dedicación del 75 %. Por ello, deberá distribuir su calendario anual con el trabajador que se acoge a la jubilación parcial, de modo que cuando este último esté trabajando, la persona contratada tendrá libre dicho período de tiempo en el calendario.

El calendario y horario laboral serán los fijados por el Ayuntamiento cada año, adecuándose siempre a las características del puesto y a las necesidades del servicio.

2. *Funciones del puesto.*

Las funciones del puesto de trabajo objeto de esta convocatoria son, a título enunciativo, las siguientes:

1. Estar en contacto diario con su responsable al objeto de distribuir las tareas y concretar los pormenores.

2. Servicio de Cementerio: comprende la realización de inhumaciones/exhumaciones; apertura y cierre de sepulturas; limpieza y mantenimiento del recinto funerario.

3. Colocar, mantener y reparar los elementos de mobiliario urbano (bancos, papeleras...), y de señalización viaria.

4. Realizar labores de mantenimiento y distribución de la maquinaria, herramientas y medios auxiliares que se utilicen.

5. Realizar todo tipo de trabajos de pintura, tanto en elementos de la vía pública como en edificios públicos.

6. Montaje de tablados y dar soporte a las necesidades de infraestructura para festejos, cultura y otros departamentos (mesas, sillas tarimas...).

7. Bere lanpostuaren kategoriarekin bat datorren eta esleitzen zaion beste edozein betebeharrak.

3. *Izangaiek bete beharrekoak.*

Onartuak izateko eta, hala badagokio, neurketan parte hartzeko, ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte izangaiek:

a) Europar Batasuneko kide diren estatuetakoren baten herritartasuna izatea edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunei jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea.

Parte hartu ahal izango du, era berean, Europar Batasuneko kide diren estatuetako herritarren ezkontideak, betiere zuzenbideko banaketarik gabekoak badira; baita bere ondorengoak eta bere ezkontidearenak ere, baldin eta zuzenbideko banaketarik gabekoak badira, eta ondorengo horiek hogeita bat (21) urte baino gutxiagokoak badira, eta adin horretatik gorakoak, baina bere pentzuan bizi direnak.

Era berean, parte hartu ahal izango dute Espainiako estatu bizi eta aurreko paragrafoetan sartu gabe daude atzerriarrek. Hauek aukeratuak izango balira, kontratuaren objektu den jarduera burutzeko administrazioaren baimena dutela probatu beharko dute, aipatutako kontratua egin baino lehen.

b) 16 urte beteta izatea.

c) Eskola-ziurtagiria edo parekoa den titulazio-maila izatea.

d) Lanpostuaren berezko egitekoak behar bezala betetzeko eragotziko dion gaixotasunik edo akats fisiko nahiz psikikorik ez izatea.

e) Diziplinazko prozeduraren bidez Administrazio Publikoetako erakundeen zerbitzuetik bereizitakoa ez izatea, eta administrazio publikoan jarduteko gaitasunaz gabeturik ez egotea.

f) 2. hizkuntza-eskakizuna, derrigorrezkoa.

Euskara: 2. hizkuntza-eskakizuna edo horren baliokidea egiaztatzea. Jarraian aipatzen diren bitartekoetatik edozein erabil daiteke hizkuntza-eskakizuna ziurtatzeko:

– Eskaerarekin batera Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen ziurtagiria (2. hizkuntza-eskakizuna lortu dela egiaztatzen duena), edo horren ziurtagiri baliokideak aurkeztuko dira, azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuari (euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailarekin pareka tzen ditu) jarraiki.

– Hautapen-prozesuan zehar IVAPeko deialdi bateratuan 2. hizkuntza eskakizunen azterketa gainditzea. Proba hori gainditu behar duten hautagaiek eskaerarekin batera azaldu behar dute, IVAPek hizkuntza eskakizunen erregistroko informazioa begiratu eta Soraluzeko Udalari emateko baimena ematen dutela.

g) B motako gida-baimena edo baliokide baten jabe izatea.

h) Kontratuaren hasiera egunean urriaren 23ko 2/2015 Errege Dekretu Legegilearen 12. artikuluko 7. atalean jasotako egoeran egotea, hau da, langabezi egoeran egotea, edo epe jakinerako kontratua izatea Soraluzeko Udalarekin.

4. *Eskabideak.*

Eskabideak eredu ofizial eta normalizatuan egingo dira. Eredua Soraluzeko Udaleko Erregistroaren Bulegoan emango dute, eta oinarri hauei erantsirik doa.

7. Cualesquiera otras funciones que le sean encomendadas de acuerdo con la categoría de su puesto de trabajo.

3. *Requisitos de las personas aspirantes.*

Las personas aspirantes deberán reunir los siguientes requisitos para su admisión y, en su caso, participación en el proceso:

a) Tener la nacionalidad de alguno de los Estados miembros de la Unión Europea, o ser nacional de algún Estado al que, en virtud de la aplicación de los Tratados internacionales celebrados por la Unión Europea y ratificados por el Estado español, le sea de aplicación la libre circulación de personas trabajadoras.

También podrán participar el cónyuge de las personas nacionales de los Estados miembros de la Unión Europea, siempre que no esté separada de derecho, así como sus descendientes y los/las de su cónyuge, siempre, asimismo, que ambos cónyuges no estén separados de derecho, sean estos/as descendientes menores de veintidós (21) años o mayores de dicha edad que vivan a sus expensas.

Asimismo, podrán tomar parte las personas extranjeras no incluidas en los párrafos anteriores residentes en el estado español. En caso de que resulten seleccionadas, y previamente a la firma del contrato, deberán acreditar que cuentan con autorización administrativa para ejercer la actividad objeto de dicho contrato.

b) Tener cumplidos 16 años.

c) Estar en posesión del Certificado de Escolaridad o titulación equivalente.

d) No padecer enfermedad ni impedimento físico o psíquico que le impida desempeñar adecuadamente las funciones propias del puesto de trabajo.

e) No haber sido separado/a del servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas mediante expediente disciplinario, ni hallarse inhabilitado/a para el ejercicio de funciones públicas.

f) Perfil Lingüístico 2, preceptivo.

Euskera: acreditación del perfil lingüístico 2 o equivalente. Este extremo podrá acreditarse por cualquiera de estos dos medios:

– Presentación, junto con la instancia, del certificado del Instituto Vasco de Administración Pública de haber acreditado el perfil lingüístico 2, u otros certificados equivalentes de conformidad con el Decreto 297/2010, de 9 de noviembre, de convalidación de títulos y certificados acreditativos de conocimientos de euskera, y equiparación con los niveles del Marco Común Europeo de Referencia para las lenguas (*Boletín Oficial del País Vasco 15-11-2010*).

– Superar en el curso del proceso selectivo las pruebas de acreditación del perfil lingüístico 2 en convocatoria unificada del IVAP. Los candidatos que tengan que realizar esta prueba deberán expresar junto con la instancia la autorización expresa para que el IVAP consulte la información del registro de perfiles lingüísticos y se la comunique al Ayuntamiento de Soraluze.

g) Estar en posesión del permiso de conducción B o equivalente.

h) En la fecha de realizar el contrato de relevo, encontrarse en la situación prevista en el apartado 7 del artículo 12 del Real Decreto Legislativo 2/2015, de 23 de octubre, esto es, en situación de desempleo. o bien tener concertado con el Ayuntamiento de Soraluze un contrato de duración determinada.

4. *Instancias.*

Las instancias se ajustarán al modelo oficial y normalizado que será facilitado en la Oficina del Registro del Ayuntamiento de Soraluze/Placencia de las Armas, y que se adjunta a las presentes bases.

Lehiaketa-oposizioan parte hartzeko eskabideak Soraluzeiko Udaleko Alkate-Lehendakariari zuzenduko zaizkio, eta ondoko baldintza hauek bete beharko dira atzera bota ez izateko:

a) Hirugarren oinarrian eskatutako baldintza bakoitza eta guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute izangaiek, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunari dagozkioa.

b) Eskabidearekin batera, ondoko agiriok erantsiko dituzte:

- Nortasun-agiriaren fotokopia.
- Deialdian parte hartzeko eskatutako tituluaren fotokopia.

– Hala badagokio, eskatutako hizkuntz eskakizuna egiaztatzeke tituluen edota egiaztagirien fotokopia.

– Eskabidean adierazitako merezimenduak egiaztatuko dituzten agiriak, lehiaketaren fasean baloratuak izateko.

Laneko esperientzia egiaztatu beharko da lan egindako Enpresek edo Administrazioek egindako ziurtagirien bidez, bertan kontratuaren iraupena eta lanaren eginkizunak zehaztuz. Esparru pribatuko esperientzia egiaztatzeke, gainera, Gizarte Segurantzari kotizatu izanaren ziurtagiriak aurkeztu behar dira.

Eskabidean Soraluzeiko Udalean egindako zerbitzuak eta laneko esperientzia adierazi baditu, ez da agiri bidez egiaztatu beharrik izango, eta izangai bakoitzaren espedientean azaltzen diren datuen arabera baloratuko dira.

Prestakuntza osagarriari buruzko merezimendua egiaztatzeke aurkeztuko duen agirian, haren iraupena zehaztu beharko du. Horrela egin ezean, Epaimahaiaren esku geratuko da merezimendu hori baloratzea ala ez.

c) Izangaiek eskabideetan adierazi beharko dute oposizioaldiko ariketak Erkidego Autonomoko zein hizkuntza ofizialetan egin nahi dituzten.

Eskabideak, behar bezala beteta, Soraluzeiko Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dituzte, deialdiaren iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasi eta hurrengo 20 egun naturaleko epearen barruan.

Eskabideak, era berean, Administrazio Publikoaren Prozedura Administratibo Erkidegoaren 39/2015 Legearen 16 artikuluan adierazitako Administrazio Publikoetako erregistroetan ere aurkeztu ahal dira.

Soraluzeiko Udaleko Alkate-Lehendakariari zuzenduko zaizkio, eta, eskabideak aurkezteko epearen barruan, dagokion funtzionarioak data eta zigilua jarrita eduki beharko dute. Izan ditzaketan egitatezko akatsak, edozein unetan zuzendu ahal izango dira, ofizioz edo interesatuak eskatuta.

5. Izangaiek onartzea.

Onartuen eta kanporatuen behin-behineko zerrendak Soraluzeiko Udaleko iragarki-taulan eta Soraluzeiko Udalaren web-orrian ere jarriko dira ikusgai.

Udalak 10 laneguneko egun epea emango du erreklamazioak egiteko, Administrazio Publikoaren Prozedura Administratibo Erkidegoaren 39/2015 Legeak 68. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Behin-behineko zerrendak, besterik gabe, behin betikotzat joko dira erreklamaziorik ez badago. Halakorik badago, berriz, beste ebazpen baten bidez izango dira onartuak edo bazter-

Las instancias para tomar parte en el concurso-oposición se dirigirán al Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Soraluze/Placencia de las Armas y deberán cumplir los siguientes requisitos para que no sean rechazadas:

a) Las personas aspirantes deberán manifestar que reúnen todas y cada una de las condiciones enumeradas en la base tercera, referidos al día de finalización del plazo de presentación de instancias.

b) Junto con la instancia, deberán presentar la siguiente documentación:

- Fotocopia del documento de identidad.

– Fotocopia de la titulación exigida para tomar parte en la convocatoria.

– En su caso, fotocopia del título o certificado que acredite el perfil lingüístico exigido.

– Documentos que acrediten los méritos señalados en la instancia, para su valoración en la fase de concurso.

Para la acreditación de la experiencia laboral se deberá presentar certificado expedido por la Empresa o Administración correspondiente, en el que se especificará la duración del contrato y las funciones desarrolladas en el puesto de trabajo. Para acreditar la experiencia en el ámbito privado, además deberán presentarse los certificados de las cotizaciones a la Seguridad Social.

Si en la instancia se hacen constar los servicios prestados y la experiencia laboral en el Ayuntamiento de Soraluze/Placencia de las Armas, no será necesaria su acreditación documental, ya que serán valorados conforme a los datos que figuren en los expedientes de cada aspirante.

En la documentación presentada para acreditación de méritos sobre formación complementaria, deberá especificarse su duración. En caso contrario, quedará a criterio del Tribunal Calificador la valoración o no de dicho mérito.

c) Las personas aspirantes deberán especificar en sus instancias en qué idioma oficial de la Comunidad Autónoma Vasca desean realizar los ejercicios de la fase de oposición.

Las instancias, debidamente cumplimentadas, deberán ser presentadas en las oficinas del Registro General del Ayuntamiento de Soraluze/Placencia de las Armas, dentro del plazo de 20 días naturales contados a partir del día siguiente al de la publicación del anuncio de la convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Las instancias podrán ser también presentadas en cualquiera de los lugares previstos en el artículo 16 de la Ley 39/2015, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Estarán dirigidas a la Alcaldía-Presidencia del Ayuntamiento de Soraluze/Placencia de las Armas, y serán fechadas y selladas por la persona funcionaria correspondiente, dentro del plazo de presentación de instancias. Los errores de hecho podrán subsanarse en cualquier momento, de oficio o a petición de la persona interesada.

5. Admisión de personas aspirantes.

Las listas provisionales de personas admitidas y rechazadas serán expuestas al público en el Tablón de Anuncios así como en la página web del Ayuntamiento de Soraluze/Placencia de las Armas.

El Ayuntamiento concederá un plazo de 10 días hábiles para presentar reclamaciones, de conformidad con lo establecido en el artículo 68 de la Ley 39/2015, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

En caso de no presentarse reclamaciones, la relación provisional pasará automáticamente a ser definitiva. Si las hubiera, estas serán admitidas o desestimadas mediante una nueva

tuak. Ebazpen horren bidez, behin betiko zerrendak onetsiko ditu Udalak, eta udaleko iragarki taulan eta Soraluzeko udalaren web-orrian ere argitaratuko ditu.

Azken erabaki horren aurka administrazioarekiko auzien errekurtsioa jarri ahal izango da Euskal Herriko Justiziako Auzitegi Nagusian, Administrazioarekiko Auzietarako Salan; eta horretarako epea bi hilabetekoa izango da, onartuen eta baztertuen zerrenda Soraluzeko Udaleko iragarki-taulan argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita. Hori, ordea, ez da eragozpen izango, inork bidezkotzat jotzen badu, beste edozein errekurtsio aurkez dezan.

Aldez aurretik, eta hala nahi izanez gero, birjarpen-errekurtsioa jarri ahal izango da hilabeteko epean.

Onartuen eta baztertuen zerrendarekin batera lehen frogara egingo den eguna argitaratuko da ere.

6. Epaimahaia.

6.1. Osaera: Deituriko hautaketa-prozesuaren epaimahai kalifikatzailea ondokoak kontuan izanda eratuko da: ekainaren 7ko 896/91 Errege Dekretuaren 4. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 31. artikuluan ezarritakoa, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua eta Administrazioaren Zerbitzupeko Langileen Sarrerari buruzko Arautegi Orokorra onesten duen martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretua.

Epaimahaia mahaiburuak, idazkariak eta Alkate-Lehendakariak erabakiko dituen kideek osatuko dute, eta inoiz ez dira izango bost baino gutxiago. Langileen ordezkariak izendatutako batek hartuko du parte epaimahaian.

Epaimahaia osatzen duten titularren eta ordezkoen izen zerrenda udalaren iragarki taulan eta Soraluzeko udalaren web-orrian argitaratuko da, onartuen eta baztertuen zerrendekin batera, behin Alkatetza-Lehendakariak izendatuta.

Udalean presentzia duten alderdi politikoaren ordezkariak parte har dezakete begirale moduan.

6.2. Espezialitatea: Epaimahaiaren eraketa teknikoa izango da batez ere, eta boto-eskubidea duten kide guzti-guztiek izango dute deitutako lanpostuetarako eskatzen den titulu edo ikasketa maila berdina edo goragokoa, eta kideen erdiek gutxienez bete nahi den lanposturako eskatzen den ezagutzarloroko titulazioa eta espezializazioa eduki beharko dute.

6.3. Abstentzia eta errefusatzeta. Epaimahai kalifikatzailearen kideek ez dute esku hartuko eta alkate-lehendakariari jakinaraziko diote Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan oharmandako gorabeheraren bat egonez gero, eta izangaiek mahai-kideak ezetsi ditzakete aipatu legearen 24. artikuluan ezarritakoarekin bat etorruta.

6.4. Aholkulariak: Aholkulari espezialistak egon ahal izango dira, egokiak iruditutako probak programatzeko edo ebaluatzeko. Aholkulari horiek beren espezialitatearen arloan laguntza ematera mugatuko dira.

6.5. Eraketa eta lan egitaraua: Epaimahaia lehen proba egin aurretik eratuko da. Eratze-ekitaldian epaimahaiko kide titular edo ordezkari gehienek egon beharko dute. Era berean, ekitaldi horretan hautatze-prozesuko egintza guztiak objektiboki eta era eraginkorrean antolatuta, garatu eta ebaluatzeko neurri guztiak hartuko dira.

resolución del Ayuntamiento que aprobará las listas definitivas, las cuales serán publicadas en el tablón de anuncios y en la página web del Ayuntamiento de Soraluze/Placencia de las Armas.

En contra de este acuerdo podrá ser interpuesto recurso contencioso-administrativo en el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en la Sala de lo Contencioso-Administrativo, en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente a la publicación de la lista de personas aspirantes admitidas y excluidas en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Soraluze/Placencia de las Armas. Sin que ello suponga impedimento alguno para la interposición de cualquier otro recurso, si se estima procedente.

Previa y potestativamente, podrá interponerse recurso de reposición dentro del plazo de un mes.

Junto con la lista de admitidos y excluidos se publicará la fecha de realización de la primera prueba.

6. Tribunal calificador.

6.1. Composición: El Tribunal Calificador de la convocatoria de selección se constituirá conforme a lo señalado en el artículo 4 del Real Decreto 896/91, de 7 de junio, y en el artículo 31 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre y Real Decreto 364/1995, de 10 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento General de Ingreso del Personal al Servicio de la Administración.

El Tribunal contará con un/a presidente, un/a secretario/a y los/as vocales que determine el Alcalde-Presidente, no pudiendo ser en ningún caso el número de miembros del Tribunal inferior a cinco. Formará parte del tribunal un miembro designado por los representantes de los trabajadores.

La relación nominal de personas titulares y suplentes que integran el Tribunal se publicará en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento de Soraluze/Placencia de las Armas y en su página-web, conjuntamente con los listados de las personas admitidas y excluidas, previa su designación por la Alcaldía-Preidencia.

Podrán estar presentes, con carácter de observador, representantes de los partidos políticos con presencia en el Ayuntamiento.

6.2. Especialidad: La composición del tribunal será predominantemente técnica, y la totalidad de sus miembros con derecho a voto deberá poseer una titulación o nivel académico igual o superior al exigido para el acceso a las plazas convocadas, y al menos la mitad de los miembros deberá poseer una titulación o especialización en el área de conocimiento exigida para el puesto.

6.3. Abstención y recusación. Los miembros del Tribunal Calificador deberán abstenerse de formar parte del mismo, notificándolo al Alcalde-Presidente, cuando concorra alguna de las circunstancias previstas en el artículo 23 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, pudiendo los aspirantes promover su recusación, conforme a lo establecido en el artículo 24 de la citada ley.

6.4. Asesores/as: Se podrá disponer de asesores/as especialistas para la programación o evaluación de las pruebas que se estimen pertinentes, limitándose los/as mismos/as a prestar su colaboración en el ámbito de su especialidad.

6.5. Constitución y programación de tareas: El tribunal se constituirá antes de la realización de la primera prueba. En el acto de constitución deberán estar presentes la mayoría de los miembros titulares o suplentes del tribunal, y en dicha sesión se adoptarán las medidas oportunas para una programación, un desarrollo y una evaluación objetivas y eficaces de todas las actividades propias del proceso selectivo.

6.6. Jarduketa prozedura:

a) Epaimahaiaren jarduna, uneoro, Administrazio Publikoaren Prozedura Administrazio Erkidegoaren 39/2015 Legeak xedatutakoaren arabera izango da. Epaimahai ezin osatu ahal izango da eta jardun ere ez, titulartetako edo ordezkari diren kideetako hiru (3) behintzat bertan ez baldin badaude, idazkaria kontuan hartu barik. Epaimahai kalifikatzailearen erabakiak bertan dauden kideen gehiengoak aldeko botoa emanda hartuko dira; boto-berdinketa egonez gero, epaimahaiaren lehendakariaren kalitatezko botoa erabiliko da berdinketa hausteko. Epaimahai kalifikatzaileko kide guztiak hitza eta botoa izango dute, idazkariak izan ezik; idazkariak hitza baino ez du izango.

b) Epaimahaiak, hala behar izanez gero, arau hauek aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen zalantza guztiak ebatzi ahal izango ditu. Era berean, probak egiteko beharrezko diren moldaketa guztiak egin ahal izateko neurri egokienak hartuko ditu.

c) Epaimahaiak ezingo ditu deialdian iragarritako lanpostuen kopurua baino izangai gehiago hautatu. Betiere lanpostua beteko dela ziurtatzeko xedez, lan postsa bat sortuko da hautaketa prozesuan frogatu guztiak gainditu dituzten izangaiek osatua.

d) Izangai batek ere gaindituko ez balitu baztertzailak diren proba guztiak, lanpostua bete gabe geratuko da.

7. Gaitasunaren faseko ariketak.

Soraluzeko Udaleko iragarki-taulan eta Soraluzeko udalaren web-orrian argitaratuko da lehenengo ariketa egiteko deialdia, eta han adieraziko da azterketa zein egun, ordu eta tokian egingo den. Ondorengo deialdiak Epaimahaiak iragarriko ditu, aditzera emateko egoki deritza moduan.

Gaitasunaren fasean ondoko ariketa hauek egingo dira:

– Lehen ariketa: Derrigorrezkoa eta baztertzaila.

Ariketa hau bi frogak osatuko dute:

1. Froga teorikoa: Peoi-lurperatzaile lanpostuaren eginkizunekin edo/eta eranskinean jasotako gaiekin zerikusia duten galderei erantzun beharko zaie. Epaimahaiak erabakiko du izangaiek erantzun beharrezkoa test modukoa izango den edo ez, eta nola puntuatuko den.

Froga honetan gehienez 10 puntu lortu ahal izango dira. Prozesuan aurrera jarraitzeko derrigorrezkoa izango den puntuazioa epaimahaiak erabakiko du eta azterketa-egunean emango du jakitera, baina ez da inoiz izango % 50etik beherakoa.

2. Froga praktikoa: Epaimahai kalifikatzaileak proposaturiko kasu praktikoa bat edo gehiago ebatzi beharko dira. Ariketa praktikoa Eranskinean jasotako gai zerrendarekin zerikusia izango dute eta lanpostuaren funtzio zehatzekin.

Froga honetan gehienez 20 puntu lortu ahal izango dira. Prozesuan aurrera jarraitzeko atera beharrezko puntuazioa epaimahaiak erabakiko du eta azterketa-egunean emango du jakitera, baina ez da inoiz izango % 50etik beherakoa.

Ariketa hauek 2017ko irailetik aurrera egingo dira.

8. Merezimenduen fasea.

Epaimahaiak ondorengo merezimendu hauek balioztatuko ditu, baldin eta, laugarren oinarriko b) atalean xedatutakoaren arabera, eskabidean adieraziak eta agiri bidez egiaztatutako izan badira, eta, betiere, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna kontuan hartuz:

– Lanpostuaren eginkizunekin zerikusia izanda peoi kategoriarekin edo ofizial kategoriarekin egindako inoren kontura den lana: gehienez ere 7 puntu arte, hileko 0,15 puntu.

6.6. Procedimiento de actuación:

a) El procedimiento de actuación del Tribunal Calificador se ajustará, en todo momento, a lo dispuesto en la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. El Tribunal no podrá constituirse ni actuar sin la asistencia, como mínimo, de tres (3) de sus integrantes, sean titulares o suplentes, excluyendo de dicho cómputo a quien actúe como secretario/a. Los acuerdos serán adoptados por el voto favorable de la mayoría de los miembros presentes del Tribunal, resolviendo en caso de empate el voto de calidad de la presidencia. Todos los miembros del Tribunal tendrán voz y voto, excepto quien ocupe la Secretaría, que tendrá voz pero no voto.

b) Podrá, en todo caso, el Tribunal Calificador resolver todas las dudas que pudieran surgir en aplicación de estas normas, e igualmente adoptará las medidas oportunas para toda adaptación necesaria de cara a la realización de las pruebas.

c) El Tribunal en ningún caso podrá declarar seleccionado a un número mayor de aspirantes que el de plazas convocadas. No obstante, a fin de asegurar la provisión de la plaza, se constituirá una bolsa de trabajo con los aspirantes que hayan superado las pruebas del proceso selectivo.

d) En caso de que ninguna de las personas aspirantes consiga superar todas las pruebas de carácter eliminatorio, la convocatoria será declarada desierta.

7. Ejercicios de la fase de aptitud.

La convocatoria para la realización del primer ejercicio se publicará en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Soraluze/Placencia de las Armas y en su página web, donde se especificará la fecha, la hora y el lugar del examen. Las siguientes convocatorias las anunciará el Tribunal de la forma que estime conveniente.

La fase de aptitud constará de los ejercicios que a continuación se indican:

– Primer ejercicio: De carácter obligatorio y eliminatorio.

Este ejercicio constará de dos pruebas:

1. Prueba teórica: Consistirá en responder a cuestiones relacionadas con las funciones del puesto de peón-enterrador y/o con los temas que figuran en el anexo. Quedará a criterio del Tribunal decidir si las respuestas han de ser de tipo test o no, así como el modo de puntuación.

Esta prueba se valorará con un máximo de 10 puntos. Quedará a criterio del tribunal determinar la puntuación mínima que ha de obtenerse para seguir en el proceso; nunca será inferior al 50 %, y se dará a conocer el mismo día de la prueba.

2. Prueba práctica: Consistirá en la resolución de uno o varios casos prácticos propuestos por el Tribunal Calificador. Los ejercicios prácticos estarán relacionados con el listado de temas recogidos en el Anexo y con las funciones específicas del puesto.

Esta prueba se valorará con un máximo de 20 puntos. Quedará a criterio del Tribunal determinar la puntuación mínima que ha de obtenerse para seguir en el proceso; nunca será inferior al 50 %, y se dará a conocer el mismo día de la prueba.

Estas pruebas se realizarán a partir del mes de septiembre de 2017.

8. Fase de méritos.

El Tribunal valorará los siguientes méritos, siempre y cuando, de conformidad con lo establecido en el apartado b) de la base cuarta, hayan sido alegados en la instancia y acreditados mediante documentos presentados junto con la instancia, teniendo como referencia la fecha de finalización del plazo para la presentación de solicitudes:

– Trabajo por cuenta ajena relacionado con las funciones del puesto y con categoría de peón o de oficial: 0,15 puntos por mes, hasta un máximo de 7 puntos.

Ez dira kontuan hartuko ez beka ezta laneko praktikak ere; eta industria arloan eta/edo enpresan industrialetan mantentze-lanetan izandako esperientzia ere ez.

Merezimendu horiek laugarren oinarrian jasotakoari jarraituz egiaztatu beharko dira.

– Elektrizitate, igeltserotza edo/eta iturgintzaren espezialitatean formazioa izatea, 3 puntu arte (10 ordutik gorako ikastaroak puntuatuko dira, 0,20 puntu 10 orduko).

9. Gaitasunaren fasea garatzeko era.

Epaimahaiak, hala erabakiz gero, alda egin dezake zazpigarren oinarrian adierazitako ariketen hurrenkera, eta egun batean proba bakar bat egitea ere erabaki dezake.

Epaimahaiak ariketak egiteko deialdian jarritako egunean, lekuan eta orduan agertzen ez diren izangaiak, baita ezinbesteko arrazoirengatik bada ere, hauta-prozesutik kanpo geratuko dira erabat.

Gainditu beharreko ariketa bakoitza burutu ondoren, Epaimahaiaren erabakiz iragarki-taulan emango da argitara ariketa gainditu dituzten izangaien zerrenda.

10. Epaimahaiaren proposamena.

Izangai bakoitzak bi faseetan lortu dituen puntuak batuta aterako da haren azken kalifikazioa, eta batura horrek erabakiko du izangaiak lehenesteko hurrenkera.

Puntuetan berdintasuna gertatuz gero, ondoko irizpide hauen arabera ebatziko da, jarrita dauden hurrenkeran:

- a) Proba praktikoan puntu kopururik handiena ateratzea.
- b) Formazio arloan puntuazio altuena izatea.
- c) Oraindik berdintasunak jarraituz gero, emakumezkoen aldeko diskriminazio positiboa egingo da.

Ariketak balioztatu ondoren, Epaimahaiak iragarki-taulan agerian jarriko ditu neurketa gainditu duten izangaien izenak, lortu dituzten puntuen arabera hurrenkeran antolatuta: puntu gehienekotik gutxienera.

Era berean, hautatutako izangaiaren izena argitaratuko du, deialdian iragarritako lanposturako kontratatzeke proposamenekin.

Epaimahaiaren iritziz deialdira aurkeztutako izangaien artean ez badago lanpostua betetzeko gutxienera baldintzak betetzen dituenik, lanpostua bete gabe aldarrika dezake.

Epaimahaiak ezingo ditu, inolaz ere, deialdiko lanpostua baino izangai gehiago proposatu, lan-poltsarako izangaien kasuan izan ezik.

Epaimahaiak Soraluzeko Udaleko organo eskudunari bidaliko dio akta, behar diren kontratazioak egin ditzan.

Proposatua izan den izangaiak, hautatutako izangaiaren proposamena argitara ematen jakitera emango den epean, deialdian parte hartzeko oinarrietan eskatzen diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten jatorrizko agiriak aurkeztuko ditu, eta lanean hasteko kontratua sinatu beharko du.

Ezarritako epean, eta ezinbesteko arrazoiren batengatik izan ezean, izangaiak agiriak aurkezten ez baditu, edo kontratua sinatuko ez balu, bere jardun guztiak baliorik gabe geratuko dira. Kasu horretan, lehiaketa-oposizioa gainditu eta azken kalifikazioaren hurrenkeran ondoren dagoenaren edo daudenen aldeko proposamena egingo du organo eskudunak.

No se tomarán en consideración las becas y las prácticas laborales, y tampoco la experiencia en el sector industrial y/o en trabajos de mantenimiento de empresas industriales.

Dichos méritos deberán ser acreditados de conformidad con lo establecido en la base cuarta.

– Formación complementaria en electricidad, albañilería y/o fontanería, hasta 3 puntos (se valorarán los cursos de duración superior a 10 horas y a razón de 0,20 puntos / por cada 10 horas).

9. Desarrollo de la fase de aptitud.

Si el Tribunal lo estima conveniente, podrá variar el orden de los ejercicios establecido en la base séptima, así como decidir la realización de una única prueba al día.

Las personas aspirantes que no comparezcan en el lugar, día y hora establecidos por el Tribunal en la convocatoria para la realización de los ejercicios, incluso por causa de fuerza mayor, quedarán excluidas definitivamente del proceso de selección.

Tras la realización de cada uno de los ejercicios que han de ser superados, el Tribunal acordará que se exponga en el tablón de anuncios la relación de aspirantes que lo hayan superado.

10. Propuesta del Tribunal.

La calificación final de cada aspirante se obtendrá mediante la suma de los puntos que ha obtenido en las dos fases, y esa suma decidirá el orden para priorizar a los aspirantes.

En caso de empate en la puntuación, se decidirá de conformidad con los siguientes criterios, respetando su orden:

- a) La obtención de mayor puntuación en la prueba práctica.
- b) Mayor puntuación en el ámbito de formación.
- c) En caso de persistir el empate, se atenderá a la discriminación positiva de sexo femenino.

Una vez valorados los ejercicios, el Tribunal expondrá en el tablón de anuncios los nombres de las personas aspirantes que hayan superado el concurso-oposición, en orden decreciente conforme a los puntos obtenidos.

Del mismo modo, también publicará el nombre de la persona aspirante seleccionada, con la propuesta de contratación para el puesto objeto de esta convocatoria.

Si en opinión del Tribunal entre las personas aspirantes presentadas a la convocatoria no hay ninguna que cumpla los requisitos mínimos para cubrir el puesto de trabajo, puede declarar desierta la convocatoria.

El Tribunal no podrá, de ninguna manera, proponer más aspirantes que el puesto de trabajo convocado, excepto en el caso de las personas de la bolsa de trabajo.

El Tribunal remitirá el acta al órgano competente del Ayuntamiento de Soraluze/Placencia de las Armas, al objeto de que realice las contrataciones correspondientes.

La persona aspirante que haya sido propuesta, en el plazo en que se señale en su propuesta como candidata seleccionada, deberá presentar los documentos originales que acreditan que cumple los requisitos solicitados en las bases para tomar parte en esta convocatoria, así como suscribir el contrato para comenzar a desempeñar su trabajo.

En caso de que la aspirante no acredite en el plazo establecido el cumplimiento de los requisitos exigidos, salvo que concurran razones de fuerza mayor, no podrá ser contratada y todas sus actuaciones quedarán anuladas. En este caso, el órgano competente realizará una propuesta a favor de la persona o personas que se encuentren en los siguientes puestos de la relación de aprobados, conforme al orden de la última calificación.

11. Kontratazioa-Frogaldia.

Alkate-udalburuak epaimahaiak proposaturiko izangaiari txandakako kontratua egingo dio, lau urtetarako, baina legeak aurreikusitako frogaldia izango du, hau da, bi hilabetekoa.

Frogaldi honek hautaketa-prozesuaren atal baten izaera izango du, horren azken balorazioa gai/ez-gai izango da, eta Udal Iragarki Taulan argitaratuko da.

Epe hori amaitu aurretik, dagokion arduradunak langileak egindako lanari buruzko txostena egingo du, eta erakutsi dituen gaitasunak hartuko ditu kontuan txosten horretan:

– Lanerako ahalmena eta errendimendu profesionala, erantzukizunaren eta eraginkortasunaren zentzua, lanerako prestasuna eta ekimena, eta lanarekiko interesa.

– Lantaldera moldatzeko erakutsi duen gaitasuna ere hartuko da kontuan.

Behin-behineko ezgaitasun-egoeragatik, amatasunagatik, aitasunagatik eta adopzioa edo harreragatik lizentzia hartzeak frogaldiaren etenaldia suposatuko du, eta lanera bueltatzerakoan falta den frogaldiari dagokion epea berriz hasiko da zenbatzen.

Kontratua egin aurretik medikuaren ikuskapena pasatu izanaren eta lanpostu honi dagozkion eginkizunei aurre egiteko gai dela adierazten duen ziurtagiria eta zinpeko aitortpena aurkeztu beharko du.

Halere, eta frogaldia bukatu aurretik, bere osasun egoera ona dela eta lanpostuaren eginkizunak betetzeko gai dela egiaztatze behar diren osasun azterketa eta frogak egingo dizkio, eta horiei uko egingo balie edo ez dela gai emango balu kontratua bertan behera utziko du udalak.

12. Lan-poltsa.

Kontratua eskuratu ez baina oposizioaldia gainditu duten hautagaiekin, peoi lan-poltsa osatuko da, eta aldi baterako kontratatze premien aurrean bertara joko du Udalak, enplegua sustatzeko programen deialdiak diren kasuetan izan ezik, horrelako kasuetan izangaiek perfil zehatza bete behar baitute.

Lan-poltsak urtebeteko balioa izango du, onartzen denetik kontatzen hasita, eta urtez urte eta gehienez ere beste lau urtez luzatu ahal izango da, betiere Pertsonal Batzordearen proposamenari jarraituz Alkate-Lehendakariak besterik erabakiko ez balu.

13. Dokumentazioa itzultzea.

Instantziarekin batera aurkeztu den dokumentazioa jasotzeko eskubidea izango dute aurkeztu diren izangaiek, kontratatuko direnak eta lan-poltsarako izendatuko direnak izan ezik.

Hautaketa-prozesua bukatu eta hiru hilabeteko epean jasotzen ez den dokumentazioa txikitu eta bota egingo du Udalak.

14. Prozesuaren argitalpenak.

Prozesu honetan argitaratu beharrekoak (onartuen eta baztertuen zerrenda, oposizioaldiko emaitzak, lehiaketaldiaren emaitzak...) Soraluze Udaleko web-orrian ere argitaratuko dira (www.soraluze.eus).

Datu pertsonalen babeserako araudiari jarraituz, edozein izangai edo parte-hartzailek izango du bere datuak eskuratu, zuzendu edo ezabatze eskubidea; horretarako, eskaera aur-

11. Contratación-Período de prueba.

A la persona aspirante propuesta por el Tribunal el Alcalde-Presidente le realizará un contrato de relevo, con duración de cuatro años, con el período de prueba legal correspondiente de dos meses.

Dicho período de prueba constituirá una fase más del proceso selectivo, con una calificación final de apta o no apta, que será publicada en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento.

Antes de la finalización del período de prueba, el/la responsable correspondiente emitirá un informe sobre el trabajo desempeñado por la persona aspirante, en el que tomará en cuenta las aptitudes que haya demostrado:

– Capacidad de trabajo y rendimiento profesional, sentido de la responsabilidad y de la efectividad, disposición e iniciativa para el trabajo y, por último, interés mostrado hacia el trabajo.

– Se tendrá también en cuenta la capacidad mostrada para adaptarse al equipo de trabajo.

La licencia por situación de incapacidad temporal transitoria, por maternidad, paternidad, adopción o acogida supondrá la interrupción del período de prueba, cuya computación se reanudará a partir de la reincorporación al trabajo.

Antes de la firma del contrato, deberá someterse a inspección médica y presentar el certificado que acredite su aptitud para desarrollar las funciones correspondientes al puesto de trabajo, así como declaración jurada al efecto.

No obstante, antes de la finalización del periodo de prueba, se le someterá a inspección médica y a las pruebas precisas para comprobar su buen estado de salud y su aptitud para el cumplimiento de sus funciones en el puesto de trabajo. En caso de negarse a ello, o de resultar no apto/a, el Ayuntamiento dejará sin efecto el contrato.

12. Bolsa de trabajo.

Con las personas aspirantes que habiendo superado la fase de oposición no hubieren accedido al contrato, se creará una bolsa de trabajo de peones, a donde recurrirá el Ayuntamiento ante necesidades de contratación temporal, siempre que no se trate de convocatorias de programas de fomento de empleo, ya que en ese caso los/las candidatos/tas han de cumplir un perfil concreto.

El plazo de vigencia de dicha bolsa de trabajo será de un año, a partir de su aprobación, y será prorrogable anualmente, como máximo por otros cuatro años, siempre que no resuelva otra cosa la Alcaldía-Presidentencia a propuesta de la Comisión de Personal.

13. Devolución de documentación.

Toda persona aspirante tendrá derecho a que se le devuelva la documentación que presentó junto con la instancia, salvo quienes vayan a ser contratadas y quienes figuren en la bolsa de trabajo.

Transcurrido un plazo de tres meses tras la finalización del proceso de selección, el Ayuntamiento procederá a la destrucción y eliminación de la documentación que no haya sido devuelta.

14. Publicaciones del proceso.

Todo aquello que se haya de publicar durante el proceso (relación de personas admitidas y excluidas, resultados de la fase de oposición, resultados de la fase de concurso...) se publicará también en la página web del Ayuntamiento de Soraluze/Placencia de las Armas (www.soraluze.eus).

De conformidad con la normativa para la protección de datos personales, todas las personas candidatas o participantes tendrán derecho al acceso, rectificación o cancelación de

keztu beharko du helbide honetara bidalitako idatziaren bitartez: Soraluzeko Udala, Santa Ana kalea 1, 20590 Soraluze.

15. Gorabeherak.

Epaimahai kalifikatzailea eskuetsirik dago sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta lehiaketa-oposizioaren jarduera ona zaintzeko beharrezko diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan eta aplikazio osagarriko legedian xedatu ez diren kasuetarako.

16. Inpugnazioa.

Deialdiaren, bere oinarrien eta deialditik eta Epaimahai Kalifikatzailearen jardueratik erator daitezkeen administrazio egintzen aurka egin dezakete interesdunek Soraluzeko Alkatezaren aurrean, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio ezarritako epean eta moduan, uztailaren 13ko Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen 29/1998 Legean aurreikusitakoaren arabera.

ERANSKINA

1. Eraikuntza-lanetarako berezko tresnak eta materialak, eta horien erabilera.
2. Igeltserotza peoiaren egitekoak, funtzioak eta lan txikiak.
3. Elektrizitatea: Kontzeptua. Korrante elektriko motak eta efektuak. Materialak. Lanabesak eta oinarritzko lanak.
4. Segurtasuna eta osasuna eraikuntza lanetan. Arriskuen ebaluaketa. Babes-ekipamenduak.
5. Eraikuntzaren hainbat elementu. Ormak, trenkadak eta paretak.
6. Aldamioak. Sailkapena, egitura, ezaugarriak.
7. Pintura: Motak. Tresnak. Euskarriak. Teknikak.
8. Iturgintza. Oinarritzko ezagupenak.
9. Eraistek. Prozedura eta hondakin-kentzea.
10. Obrako seinaleak eta balizak jartzea, bide publikoetan egiten diren lanetan.
11. Zamak eskuz manipulatzea. 487/1997 Errege Dekretua, apirilaren 14koa. Eranskina.
12. Aritmetika eta geometriako oinarritzko ezagutzak.
13. Soraluze eta bere inguruko ezaguera fisikoa. Hirigunea eta landagunea.

sus datos, para lo cual deberán presentar una solicitud por escrito dirigida a: Ayuntamiento de Soraluze/Placencia de las Armas, Santa Ana kalea 1, 20590 Soraluze.

15. Incidencias.

El Tribunal Calificador queda facultado para resolver las dudas que se presenten y adoptar los acuerdos precisos para el buen orden del concurso-oposición respecto a todo aquello no previsto en las presentes bases o en la legislación de aplicación subsidiaria.

16. Impugnación.

La presente convocatoria, sus bases y cuantos actos administrativos se deriven de ella y de la actuación del Tribunal Calificador, podrán ser impugnados ante la Alcaldía de Soraluze/Placencia de las Armas, en los plazos y forma previstos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y conforme a lo previsto en la Ley 29/1998 de 13 de julio Reguladora de la Jurisdicción Contencioso- Administrativa.

ANEXO

1. Herramientas y materiales propios para los trabajos de construcción, y su utilización.
2. Tareas, funciones y pequeños trabajos del peón de albañilería.
3. Electricidad: Concepto. Tipos de corriente eléctrica y efectos. Materiales. Herramientas y operaciones básicas.
4. Normas básicas de salud y seguridad laboral. Evaluación de riesgos. Equipos de Protección.
5. Diversos elementos de la construcción. Muros, tabiques y paredes.
6. Andamios. Clasificación, estructura, características.
7. Pintura: Tipos. Herramientas. Soportes. Técnicas de pintar.
8. Fontanería: Nociones básicas.
9. Demoliciones. Procedimiento y retirada de residuos.
10. Señalización y balizamiento de las obras que se realizan en vías públicas.
11. Manipulación manual de cargas. Real Decreto 487/1997, de 14 de abril. Anexo.
12. Conocimientos básicos de aritmética y geometría.
13. Conocimiento físico de Soraluze y su entorno. Trama urbana y rural.



SORALUZeko UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

ESKABIDEA / INSTANCIA

LANPOSTUA / PLAZA: Obretako peoi-lurperatzailea / Peón-enterrador de obras

FROGETAN ERABILI NAHI DUEN HIZKUNTZA / LENGUA EN QUE DESEA REALIZAR LAS PRUEBAS:

Euskara/Euskera

Gaztelera/Castellano

DATU PERTSONALAK / DATOS PERSONALES

Izen-abizenak <i>Nombre y apellidos</i>					
NAN zk. <i>DNI nº</i>		Jaioteguna <i>Fecha nacimiento</i>		Telefonoa <i>Teléfono</i>	
Helbidea <i>Domicilio</i>					
Herria <i>Localidad</i>		Posta kodea <i>Cód. Postal</i>		Email	

IKASKETAK / FORMACIÓN

LANEKO ESPERIENTZIA / EXPERIENCIA LABORAL

Enpresaren izena <i>Nombre de la empresa</i>	Kontratuaren iraupena <i>Duración del contrato</i>	Betetako lanpostua <i>Puesto de trabajo ocupado</i>

BESTELAKO MERITUAK (ikastaroak, mintegiak, diplomak...)/ OTROS MÉRITOS (cursos, seminarios, diplomas...)



SORALUZECO UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

HONEKIN BATERA DOAZEN AGIRIAK / DOCUMENTOS APORTADOS

Eskatzaileak deialdiaren oinarrietan azaldutako eskakizun guztiak betetzen dituela adierazten du eta, hortaz, onartua izatea eskatzen du.

La persona solicitante declara cumplir todas las condiciones exigidas en las bases y, en consecuencia, solicita ser admitida.

Era berean adierazten du,

Igualmente declara que

BAI

EZ

SÍ

NO

Soraluzeko Udala **BAIMENTZEN DUELA** bere datu pertsonalak beste Herri Administrazio batzuei emateko, betiere eskaera honen bidez eskuratu nahi duen lanpostuaren antzekoetan sor dakizkiekeen aldi baterako langile-beharrei erantzuteko.

AUTORIZA al Ayuntamiento de Soraluze/ Placencia de las Armas para que facilite sus datos personales a otras Administraciones públicas que así lo soliciten, siempre que sea al objeto de cubrir necesidades de personal no permanente en puestos similares al que opta mediante esta instancia.

OHARRA: Eskaera-orri honetako datu pertsonalak dagokionaren onespenearekin jasotzen dira eta Soraluzeko Udalak behar bezala baimendutako fitxategietan sartuko ditu. Datu horiek bakarrik udal kudeaketarako erabiliko dira, baina beste administrazio publikoei edo hirugarrenei laga edo jakinarazi ahal izango zaizkie abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan, Datu Pertsonalen Babesari buruzkoan, aurreikusitako kasuetan.

NOTA: Los datos personales contenidos en la presente solicitud son recogidos bajo el consentimiento de la persona afectada y serán incorporados a los diferentes ficheros debidamente autorizados titularidad del Ayuntamiento de Soraluze/Placencia de las Armas. El uso de dichos datos se restringirá exclusivamente a la gestión municipal, pudiendo procederse a su cesión o comunicación a otras Administraciones Públicas o terceros en los supuestos previstos en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal.

Interesdunek datuak eskuratzeko, ezeztatzeko, zuzentzeko eta aurka egiteko eskubidea erabili ahal izango dute, ondorengo helbidera zuzenduta: Soraluzeko Udala - Santa Ana kalea 1 - 20590 Soraluze.

Las personas interesadas podrán ejercer los derechos de acceso, cancelación, rectificación y oposición dirigiéndose a: Soraluzeko Udala - Santa Ana kalea 1 - 20590 Soraluze.